

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA

Administrazio Kontseiluaren 112/2025 Ebazpena, maiatzaren 6koa, Arabako Foru Aldundiaren erakunde autonomoa den Gazteriaren Foru Erakunderako aldi baterako lan poltsa zabaltzeko aukeraketa-prozesurako deialdia

Kontuan hartuta GFEaren aldi baterako lan-poltsak handitu behar direla lanpostu hauetan:

- Uretako kirol jardueretako espezialista.
- Kirol jardueretako espezialista.
- Muntaketako eta zerbitzuetako espezialista.
- Medikua.

Kontuan hartu da, horren arabera, enpresa batzordearekin adostu dela, 2025eko apirilaren 2an egindako bileran, dagokion deialdia egitea ALHAOren bidez.

Horregatik guztiagatik, ondoko hau hartu da:

EBAZPENA

Lehenengoa.- Gazteriaren Foru Erakundeko aldi baterako lan-poltsak zabaltzeko deialdia onartzea:

- Uretako kirol jardueretako espezialista.
- Kirol jardueretako espezialista.
- Muntaketako eta zerbitzuetako espezialista.
- Medikua.

Bigarrena.- Prozesua arautuko duten oinarri orokorrak eta espezifikoak onartzea.

Hirugarrena.- Deialdi hau ALHAOn argitaratzea onartzea.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko maiatzaren 6a

Kultura eta Kirol diputatua
ANA MARIA DEL VAL SANCHO

Gazteriaren Foru Erakundearen zuzendari kudeatzailea
JUAN JOSÉ ROJO BAZÁN

**GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEKO, ARABAKO FORU ALDUNDIAREN
ERAKUNDE AUTONOMOIA, ALDI BATERAKO LAN-POLTSA ZABALTZEKO
AUKERAKETA PROZESUA ARAUTUKO DUTEN OINARRI OROKORRAK**

1. Xedea

1.1. Oinarri hauen xedea GFEko lanpostu honetako aldi baterako lan-poltsa zabaltzeko arau orokorrak ezartzea da:

- Uretako kirol jardueretako espezialista.
- Kirol jardueretako espezialista.
- Muntaketako eta zerbitzuetako espezialista.
- Medikua.

1.2. Ezarritako betekizunak egiaztatzen ez dituzten izangaiak ezin izango dira inola ere lan-poltsan sartu.

2. Izangaiei betekizunak

2.1. Izangaiek ondoko puntuetan azaltzen diren baldintzak bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epearen amaiera-egunean.

2.2. Hona hemen deialdian onartua izateko baldintzak:

a) Eskabideak aurkezteko epea bukatzen denerako Europar Batasuneko estaturen bateko nazionalitatea izatea, edo Europar Batasunak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko hitzarmenen arabera langileen joan-etorri librea aplikagarri zaion herrialderen batekoa izatea. Orobat parte hartu ahal izango dute Europar Batasuneko estatuetakoren bateko hiritartasuna dutenen ezkontideek –zuzenbidez banatuta ez badaude–, baita haien ondorengoek nahiz ezkontideenek ere, baldin eta bi ezkontideak zuzenbidez banatuta ez badaude eta ondorengo horiek hogeita bat (21) urtetik beherakoak badira edo adin horretatik gorakoak izanda ere gurasoen kontura bizi badira.

b) Eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean, hamasei (16) urte beteta edukitzea eta nahitaezko erretiro-adina ez izatea.

c) Dagozkion egitekoak normal betetzea eragozten dion gaixotasun edo muga fisikorik ez izatea, alde batera utzita 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren ezarpena, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duena.

d) Lanposturako eskatzen den titulu ofizialaren edo homologatuaren jabe izatea edo titulu lortzeko eskubideak ordainduta izatea. Atzerriko titulua izanez gero, horren homologazioa egiaztatzen duen agiria eduki beharko da.

e) Funtzio publikoak egiteko desgaituta ez egotea, ez eta edozein herri administrazioetako zerbitzutik diziplina espediente bidez bananduta ere. Atzerritarra izanez gero, norbere estatuan funtzio publikora sartzeko galarazten duen diziplina-zigorrik edo kondena penalik ez izatea.

f) Indarreko arautegien arabera ezintasunerako edo bateraezintasunerako lege arrazoirik ez izatea, salbu utziz haien arabera dagokion aukera eskubidea.

g) Oinarri espezifikoetan eskatzen den beste edozein betekizun.

3. Eskabideen aurkezpena

3.1. Eskabideak aurkezteko epea eta modua.

Eskabideak deialdi honen eranskinetako eredu ofizialaren arabera izango dira. Inprimakia:

<https://gazteria.araba.eus/eu/lantaria/enplegu-publikoaren-eskaintza>.

Eskatzaileek lehiaketan onartuak izan daitezen egindako eskaerak Zuzendari-Kudeatzaileari bidaliko zaizkio:

- Posta elektronikoaren bidez: laboral.IFJ@araba.eus.
- Aurrez aurre, GFEren bulegoetan: Landazuri kalea, 3. Behea, Vitoria-Gasteiz.

Eskaerarekin batera:

- Nortasun agiriaren fotokopia.
- Curriculum vitae.
- Eskatutako tituluaren fotokopia.
- Merezimenduak egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztuko dira.

Lan eskarmentua egiaztatzeko, lanean jardundako enpresa edo administrazioen dagokien agiria aurkeztuko da. Agiri horretan kontratuaren iraupena, arduraldia eta lanpostuan egindakoak adieraziko dira. Enpresa pribatuetan egindako lanak egiaztatzeko, aurrekoek gain, Gize Segurantzari egindako kotizazioak aurkeztuko dira.

Gazteriaren Foru Erakundearen lanean emandako denbora legatu egin behar da, baina ez dago zertan egiaztagiririk aurkeztu. Erakundeak ofizioz zenbatuko du lan denbora hori.

Gainerako herri administrazioetan edo enpresetan lanean emandako denbora egiaztatzeko, haiek horretarako zehaztuta duten egiaztagiri ereduak erabiliko dira. Lanean emandako aldiak xehaztuta eman behar dituzte, eta aldi bakoitzari dagozkion kategoria eta taldea adierazi beharko dira.

Halaber, hizkuntza eskakizuna egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko da.

Eskabideak 2025eko maiatzaren 30era arte aurkeztu ahal izango dira, egun hori barne. Behar bezala beteta eta agiri osagarriekin batera aurkeztuko dira aurretik aipatutako ataleko erregistroan, edo urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16 artikuluan ezartzen den moduan.

4. Izangaien onarpena. Erreklamazioak

Eskabideak aurkezteko epea bukatutakoan, Zuzendaria-Kudeatzaileak izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen duen ebazpena emango du. Ebazpen hori Gazteriaren Foru Erakundearen iragarki-taulan argitaratuko da eta egun horretatik aurrera, urriaren 1eko 39/2015 Legeak 68.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, izangaiek hiru egun habil izango dituzte erreklamazioak aurkezteko Gazteria eskumena duen foru diputatuari.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda hori behin betiko bihurtuko da. Erreklamaziorik egonez gero, berriz, behin betiko zerrenda onartuko duen beste ebazpen baten bidez onetsi edo ezetsiko dira. Ebazpen hori ere adierazitako eran argitaratuko da.

5. Kalifikazio batzordea

5.1. Epaimahaiko kideak eta haien ordezkioak zuzendaria-kudeatzailearen ebazpen bidez izendatuko dira. Izendapen horiek eta onartutako eta baztertutako behin betiko zerrenda batera argitaratuko dira.

5.2. Ondokoek eratuko dute epaimahai kalifikatzailea:

Lehendakaria bat.

2 mahaikideak.

Mahaikide batek idazkari lanetan jardungo du.

5.3. Abstentzia eta errefusatzea:

Epaimahaiko kideek uko egin beharko diote kide izateari, baldin eta urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikulua ezartzen dituen egoeraren batean badaude, eta horrela adieraziko diote deialdia egin duenari.

Era berean, horrelako egoeraren bat tarteko denean, interesatuek epaimahaikideak errefusa ditzakete edozein unetan, aipaturiko legearen 24. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

5.4. Jarduteko arauak:

Epaimahaiak urriaren 1eko 40/2015 Legeko 15-18 artikuluetan ezartzen diren araei lotuta jardungo du.

Erabakiak bertan daudenen botoen gehiengoz hartuko dira. Epaimahaiko kide guztiek izango dute hitza eta botoa. Berdinketak lehendakariaren kalitate-botoak apurtuko ditu.

Lehendakaria eta haren ordezkoa gaixorik daudelako edo legezko beste zergatiren batengatik agertzen ez badira, epaimahaiko beste kideren bat izango da haien ordezko. Horretarako honako lehenetasun hurrenkera hau hartuko da kontuan: hierarkia, antzinasuna eta adina.

Postua hutsik dagoelako edo absentzia, gaixotasun edo beste legezko arrazoiren bat dela eta, Idazkaria falta bada, Epaimahaiko beste kide bat izango da haren ordezko, epaimahaiaren gehiengoak aukeratuta.

5.5. Ahalmenak:

Epaimahaiak erabateko autonomia funtzionala izango du, eta beraren ardura izango da prozedura legezketasunez egin dadin zaintzea eta objektibitatea bermatzea.

Halaber, ordenamendu juridikoarekin bat etorriz, oinarri hauek aplikatzean sortzen diren zantza guztiak ebatziko ditu eta deialdia behar bezala garatzeko beharrezko diren erabakiak hartuko ditu; azkenik, oinarrietan arautzen ez diren egoeretarako, behar diren irizpideak ezarriko ditu.

5.6. Epaimahaiak jakinarazpen eta gorabehera guztietarako Gazteriarren Foru Erakundearen izango du egoitza (Landazuri kalea, 3 behe. Vitoria-Gasteiz, Araba).

6. Aukeratzeko prozedura

6.1. Aukeratzeko prozedura orokorra lehiaketa izango da. Lehiaketa hori deialdiko oinarri espezifikoetan xedatutakoaren arabera egingo da.

6.2. Lehiaketa-aldia:

Epaimahaiko lehendakariak zehaztuko du dagokion epaimahaiak noiz eta zer ordutan aztertu lehiatzaileek aurkeztutako merezimenduak. Merezimendu horiek deialdiko oinarri espezifikoetan xedatutako baremoen arabera balioztatuko dira.

Urte, seihileko edo hilabetetan egindako denboraren arabera balioztatzen diren merezimenduak ondoko era honetan balioztatuko dira: alegatutako aldi guztietako egunen batuketa egingo da eta, hala egin ondoren, baliozko diren aldietatik beherako frakzioak ez dira aintzat hartuko. Batuketa horretarako, urteak 365 egun naturaleko balioa izango du; seihilekoak, 180 egun naturalekoa, eta hilabeteak, 30 egun naturalekoa. Lehiaketa-aldia ez da kanporagarria izango.

6.3. Berdinketarik gertatuz gero, hurrenkera ondoko irizpideen arabera zehaztuko da:

1. Herri administrazioan, beronek kontratatuta, oinarri hauetan adierazten direnen antzeko eginkizunak dituzten lanpostuetan, funtzionario bezala edo lan-kontratuko langile bezala –finkoa nahiz aldi baterakoa- egindako zerbitzuen atalean puntu gehien lortu duena.

2. Lanpostu honekin loturiko eginkizunetako lan-esperientziaren atalean puntu gehien lortu duena.

3. Alfabeto hurrenkera, oinarri hauek onartzean indarrean dagoen zozketa publikoan ateratako W letratik hasita. Langileak Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzura sartzeko Arautegi Orokorra arautzen du zozketa hori.

7. Langileen zerrenda eta aukeratutakoa

7.1. Merezimenduen balioespena bukatuta, epaimahaiak izangaien izenak jarriko ditu ikusgai iragarki taulan, azken puntuazioaren hurrenkeraren arabera ordenaturik.

7.2. Deialdia ebatzi eta gero, izangaia dagokion lan-poltsaren amaieran sartuko dira. Lan-poltsa hori aldi baterako langile baharrak estaltzeko erabiliko da eta Gazteriaren Foru Erakundeak ezarrita daukan arautegiari jarraituz kudeatuko da.

8. Lan-poltsa eratzea

Administrazio Kontseiluko lehendakariaren ebazpen bidez, gainditu duten izangaiekin lan-poltsa eratzea onartuko da.

Poltsaren bidez lan egiteko deitzen bazaie, dagokion azterketa medikoa egin beharko dute GFeko Prebentzio Zerbitzuan. Zerbitzu horrek egiaztatuko du ez dutela karguari dagozkion eginkizunak betetzea eragozten dien gaixotasunik edo akats fisikorik.

9. Gorabeherak

Sortutako zalantzak argitzeko ahalmena du epaimahaiak, baita lehiaketa behar bezala garatzeko behar dena erabakitzeko ere, oinarri hauetan nahiz legeri osagarrian xedatzen ez diren alderdiei dagokienez.

10. Aurkatzea

Oinarri hauek, deialdia bera eta horietatik zein auzitegien jardunetik datozen administrazio egintza guztiak Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erki-dearen urriaren 1eko 40/2015 Legeak epe eta eratan aurkatu ahal izango dira.

OINARRI ESPEZIFIKOAK

1. ARLOA: 2 EGOITZAK

IZENA	K. E.	D. E.	T. T.	H. E.	D. D.
Uretako Kirol Jardueretan Espezialista	D	N	C1	2	Iraungita
Kirol Jardueretan Espezialista	D	N	C1	2	
Muntai eta Zerbitzuetako Espezialista	D	N	C2	2	
Medikua	D	N	A1	3	Derrigortasun-datarik gabe

Laburtzapenak:

K. E.: Kontratazio Erregimena (L: lan kontratuko finkoa, D: lan kontratuko aldizkakoa).

D. E.: Dediakzio Erregimena (N: normala).

T. T.: Titulazio taldea.

HE: Hizkuntza eskakizuna.

DD: Derrigortasun data.

2. EGITEKOAK ETA BETEKIZUNAK

URETAKO KIROL JARDUERETAN ESPEZIALISTA

Oinarri orokorretan ezarritakoez gain, batxilergo titulua, lanbide heziketako gradu teknikari titulua edo parekidea eduki beharko da, C1 taldeko plazak betetzeko gaitzen duena, edo titulua emateko eskubideak ordainduta izan beharko ditu.

Betekizun espezifikoak:

— Bela (935/2010 Errege Dekretura egokituta, uztailaren 23koa) edo piragua (981/2015 Errege Dekretura egokituta, urriaren 30koa) espezialitateen entrenatzaileen I. mailari dagokion titulazioa (edo parekidea).

— Oinarrizko nabigazioko patroizko titulua edo parekidea.

Eginkizunak:

- Egunero erabiltzeko kirol materiala prestatzea: (bela, windsurfa, piragua, arrauna, etab.).
- Eskolak emateko material pertsonala prestatzea, eskolen antolaketarekin bat etorritik.
- Erabiltzaile taldeei eskola teorikoak eta praktikoak ematea.
- Kirol materiala biltzea, garbitzea, mantentze lanak egitea eta konpontzea.
- Aterpetzeko erabiltzaileei harrera egitea, ontzira arte bideratzea eta bertan lekua eskaintzea.
- Aterpetzeko mantentze lan txikiak.
- Aterpetzeko zerbitzuetan laguntza orokorren lan osagarriak.
- Lanpostuaren betekizunen barruko beste edozein, Zuzendaritzak aginduta.

Halaber, lanpostu honetarako ondoko esperientzia eta prestakuntza ere hartuko dira kontuan:

- Aisialdiko begiralea.
- Ur-kirolez bestelako kirol jardueretako begiralea.
- Bela-ontziko monitorea.
- Piraguako monitorea.
- Arraunketa jarduerak.
- Soroslea.

3. LEHIAKETA-ALDIA:

Epaimahaiak honako merezimenduak balioetsiko ditu, baldin eta eskabidean azaldu eta agiri bidez egiaztatu badira.

a) Administrazio publikoan funtzionario edo lan-kontratuko langile finko edo aldi baterako kontratatu gisa egindako zerbitzuak, deitutako lanposturako oinarri hauetan adierazitako eginkizunen antzeko lanpostuetan: 6 puntu gehienez, 0,15 puntu hilabete oso bakoitzeko. Administrazioan emandako zerbitzuak oinarri hauetan adierazitako eginkizunekin zati batean bat datozen lanpostuetan eta, nolahi ere, lanbide-talde berekoak eta titulazio-maila berekoak badira, hilabete oso bakoitzeko 0,10 puntu emango dira, eta gehienez ere 2,5 puntu.

b) Lanpostu honekin zerikusia duten zereginetako lan esperientzia eta, oro har, epaimahaiaren iritziz izangaien lanbide-trebakuntzari onura ekarri dioten jarduerak, baldin eta alde aurretik balioetsi ez badira. Hauek, lanean emandako hilabete bakoitzak 0,05 punturekin balioetsiko dira, gehienez ere 2,5 puntutaraino.

c) Eskuratu nahi den lanpostuarekin zerikusi zuzena duten gaiei buruzko prestakuntza osagarria, epaimahaiaren iritziz lanpostuaren funtzioetan aplikatzekoa bada: gehienez 3 punturekin baloratuko da, 0,5 puntu ikastaro bakoitzeko edo 0,01 puntu ordu bakoitzeko. Ikastaro batek 50 ordu baino gehiago izan beharko ditu puntuagarria izateko. Ordu horietatik aurrera, orduko 0,01 puntu emango dira, eta LHko urteko ikastaro bat 400 ordutzat eta master bat 1.500 ordutzat hartuko dira.

Lan egin den enpresaren edo administrazioaren agiri bidez egiaztatuko dira merezimenduak. Agiri horretan egindako lanak zehaztuko dira.

4. EUSKARA:

Hizkuntza eskakizunaren egiaztapena ondoko baremoaren arabera balioetsiko da:

- 3. Hizkuntza eskakizuna: puntu 1.
- 4. Hizkuntza eskakizuna: 2 puntu.

2. EGITEKOAK ETA BETEKIZUNAK

KIROL JARDUERETAN ESPEZIALISTA

Oinarri orokorretan ezarritakoez gain, Kirol Jarduera eta Jarduera Fisikoen Animazioan goi teknikari titulua edo parekidea eduki beharko da, edo titulua lortzeko eskubideak ordainduta izan beharko dira.

Eginkizunak:

- Egunero erabiltzeko kirol materiala prestatzea: boulderra, palak, saskiak, erraketak, pilotak, sareak, euskailuak, ateak...
- Eskolak emateko material pertsonala prestatzea, eskolen antolaketarekin bat etorriz.
- Aisialdiko jarduerak diseinatu eta kudeatzea.
- Taldeek txandaka egiteko jarduera taulak aztertzea.
- Taldeei eskola teorikoak ematea, adinaren arabera.
- Taldeei eskola praktikoak ematea, eta haiek jarraipena egitea.
- Erabilitako material guztia biltzea eta hura garbitzea.
- Kirol materiala konpontzea eta mantentze lanak egitea, bai pilotalekukoa, bai gainerako kirol jardueretakoa: garbitzea, zintak jartzea, lixatzea, masilla eta zuntza jartzea.
- Pilotalekua garbitzeko makinaren, aire filtroen eta gasolina betetzearen oinarrizko mantentze lanak egitea.
- Kanpamentua garbitu eta mantentzeko eta aterpetxean laguntza orokorra emateko lanetan laguntzea.
- Garraioan laguntzea eta erabiltzaileak aterpetxean kokatzea.
- Aterpetxeko zerbitzuetan laguntza orokorren lan osagarriak egitea.
- Lanpostuaren betekizunen barruko beste edozein, Zuzendaritzak aginduta.

3. LEHIAKETA-ALDIA:

Epaimahaiak honako merezimenduak balioetsiko ditu, baldin eta eskabidean azaldu eta agiri bidez egiaztatu badira.

a) Administrazio publikoan funtzionario edo lan-kontratuko langile finko edo aldi baterako kontratatu gisa egindako zerbitzuak, deitutako lanposturako oinarri hauetan adierazitako eginkizunen antzeko lanpostuetan: 6 puntu gehienez, 0,15 puntu hilabete oso bakoitzeko. Administrazioan emandako zerbitzuak oinarri hauetan adierazitako eginkizunekin zati batean bat datozen lanpostuetan eta, nolahi ere, lanbide-talde berekoak eta titulazio-maila berekoak badira, hilabete oso bakoitzeko 0,10 puntu emango dira, eta gehienez ere 2,5 puntu.

b) Lanpostu honekin zerikusia duten zereginetako lan esperientzia eta, oro har, epaimahaiaren iritziz izangaien lanbide-trebakuntzari onura ekarri dioten jarduerak, baldin eta alde aurretik balioetsi ez badira. Hauek, lanean emandako hilabete bakoitzak 0,05 punturekin balioetsiko dira, gehienez ere 2,5 puntutaraino.

c) Eskuratu nahi den lanpostuarekin zerikusi zuzena duten gaiei buruzko prestakuntza osagarria, epaimahaiaren iritziz lanpostuaren funtzioetan aplikatzekoa bada: gehienez 3 punturekin baloratuko da, 0,5 puntu ikastaro bakoitzeko edo 0,01 puntu ordu bakoitzeko. Ikastaro batek 50 ordu baino gehiago izan beharko ditu puntuagarria izateko. Ordu horietatik aurrera, orduko 0,01 puntu emango dira, eta LHko urteko ikastaro bat 400 ordutzat eta master bat 1.500 ordutzat hartuko dira.

Lan egin den enpresaren edo administrazioaren agiri bidez egiaztatuko dira merezimenduak. Agiri horretan egindako lanak zehaztuko dira.

4. EUSKARA:

Hizkuntza eskakizunaren egiaztapena ondoko baremoaren arabera balioetsiko da:

- 3. Hizkuntza eskakizuna: puntu 1.
- 4. Hizkuntza eskakizuna: 2 puntu.

2. EGITEKOAK ETA BETEKIZUNAK

MUNTAI ETA ZERBITZUETAKO ESPEZIALISTA

1. Sarbide betekizunak:

Oinarri orokorretan ezarritakoez gain, C2 talderako eskatzen den titulazioa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) titulua edo baliokidea da, edo titulu hori jasotzeko eskubideak ordainduta izatea. Gainera, merezimendu gisa baloratuko da eraikuntzaren eta obra zibilaren, elektrizitatearen, elektronikaren edo baliokidearen adarretako lanbide-heziketa.

2. Berariazko betekizunak:

Gainera, hauexek eduki beharko dira: B motako zirkulazioko baimena.

3. Postuaren funtzioak:

- Garbiketa.
- Instalazioak garbitzea, oro har.
- Lorezaintza.
- Berdeguneak, zuhaitzak, bideak eta ibilbideak mantentzeko lanak.
- Igeltserotza.
- Hormigoi armatuzko hondoa duten harrizko bideak egitea.
- Eustormak egitea.
- Eraikin soilak, sestrak, etab.
- Instalazioak.
- Zurezko eraikuntzen eta kanpalekuko elementuen oinarrizko mantentze-lanak eta arotze-riako konponketa txikiak, eta horiek pintatu eta bernizatzea.
- Iturgintzako konponketa txikiak egitea.
- Konponketa elektriko txikiak konpontzea.
- Aterpetxeko dendak, ohatzeak, bankuak, mahaiak, koltxoak eta gainerako elementuak muntatzea eta desmuntatzea.
- Propanoa, gasolina, zaborrak, sabanak eta aterpetxeko gainerako elementuak garraiatu eta biltegitratzea.
- Lanpostuaren betekizunen barruko beste edozein, Zuzendaritzak aginduta.

3. LEHIAKETA-ALDIA:

Epaimahaiak honako merezimenduak balioetsiko ditu, baldin eta eskabidean azaldu eta agiri bidez egiaztatuta bada.

a) Funtzionario edo aldi baterako edo behin betiko lan kontratupeko langile izanik, herri administrazioetan egindako lanak, baldin eta horietan betetakoak deitutako lanposturako oinarrietan zehaztutako eginkizunen antzekoak bada, gehienez ere 6 puntutaraino, 0,15 punturekin hilabete osoko. Herri administrazioan oinarri hauetan zehaztutako eginkizunekin partez bat datozen lanpostuetan egindako lanengatik hileko 0,10 puntu emango da, baldin eta eskatutako titulazioa dela egiaztatzen bada. Lanongatik, gehienez, 2,5 puntu lortu ahal izango dira.

b) Lanpostu honekin zerikusia duten zereginetako lan esperientzia eta, oro har, epaimahaia-
ren iritziz izangaien lanbide-trebakuntzari onura ekarri dioten jarduerak, baldin eta aldez aurretik
balioetsi ez badira. Hauek, lanean emandako hilabete bakoitzak 0,05 punturekin balioetsiko dira,
gehienez ere 2,5 puntutaraino.

c) Lortu nahi den lanpostuarekin zerikusi zuzena duten gaietan izandako prestakuntza osa-
garria: gehienez, 3 puntu lortu ahal izango dira horregatik; hain zuzen ere, 0,5 puntu ikastaroko
edo 0,01 puntu orduko.

Lan egin den enpresaren edo administrazioaren agiri bidez egiaztatuko dira merezimenduak.
Agiri horretan egindako lanak zehaztuko dira.

4. EUSKARA:

Hizkuntza eskakizunaren egiaztapena ondoko baremoaren arabera balioetsiko da:

- 2. Hizkuntza eskakizuna: puntu 1.
- 3. Hizkuntza eskakizuna: 2 puntu.
- 4. Hizkuntza eskakizuna: 3 puntu.

2. EGITEKOAK ETA BETEKIZUNAK

MEDIKUA

1. SARBIDE BETEKIZUNAK:

Oinarri orokorretan ezarritako baldintzez gainera, medikuntzako lizentziatura edo MECESeko
3. mailaren baliokidea den graduaren titulazioa, lanpostuko eginkizunetan jarduteko gaitasuna
aitortzen duena, eduki beharko du, edo titulazioa jaulkitzeko eskubideak ordainduta izan. On-
doko prestakuntza osagarria eta esperientzia balioetsiko dira:

- Larrialdietako asistentziari buruzko ikastaroak.

2. POSTUAREN FUNTZIOAK:

- Zuhatzako uharteko aterpetxean bai aterpetxeko bezeroei bai bertan diharduten langileei
sortzen zaizkien osasun arazoen diagnostikoa eta tratamendua,
- Aterpetxeko eritegia zuzenean atenditzea.
- Une jakinetan menu bereziak egitea.
- Edateko uraren klorazioa egunero kontrolatu eta arakatzea.
- Mantentze taldearekin koordinatzea legionella kontrolatzeko egitasmoari begira.
- Sendagaitegia mantentzea eta sendagaiak zaintzea.
- Beste mediku batzuek agindutako tratamenduak kontrolatzea, hala eskatzen duten pertso-
nek horren beharra izanez gero, batez ere adingabekoen kasuan.
- Lanpostuko eskakizunen barruan, zentroko zuzendaritzak agintzen dion beste edozein.

3. LEHIAKETA-ALDIA:

Epaimahaiak honako merezimenduak balioetsiko ditu, baldin eta eskabidean azaldu eta
agiri bidez egiaztatu badira.

a) Funtzionario edo aldi baterako edo behin betiko lan kontratupeko langile izanik, herri
administrazioetan egindako lanak, baldin eta horietan betetakoak deitutako lanposturako oina-
rrietan zehaztutako eginkizunen antzekoak badira, gehienez ere 6 puntutaraino, 0,15 punturekin
hilabete osoko. Herri administrazioan oinarri hauetan zehaztutako eginkizunekin partez bat
datozen lanpostuetan egindako lanengatik hileko 0,10 puntu emango da, baldin eta eskatutako
titulazioa dela egiaztatzen bada. Lanongatik, gehienez, 2,5 puntu lortu ahal izango dira.

b) Lanpostu honekin zerikusia duten zereginetako lan esperientzia eta, oro har, epaimahaia-
ren iritziz izangaien lanbide-trebakuntzari onura ekarri dioten jarduerak, baldin eta aldez aurretik
balioetsi ez badira. Hauek, lanean emandako hilabete bakoitzak 0,05 punturekin balioetsiko dira,
gehienez ere 2,5 puntutaraino.

c) Eskuratu nahi den lanpostuarekin zerikusi zuzena duten gaiei buruzko prestakuntza osa-
garria, epaimahaiaren iritziz lanpostuaren funtzioetan aplikatzekoa bada: gehienez 3 punturekin
baloratuko da, 0,5 puntu ikastaro bakoitzeko edo 0,01 puntu ordu bakoitzeko. Ikastaro batek
50 ordu baino gehiago izan beharko ditu puntuagarria izateko. Ordu horietatik aurrera, orduko
0,01 puntu emango dira, eta LHko urteko ikastaro bat 400 ordutzat eta master bat 1.500 ordutzat
hartuko dira..

Lan egin den enpresaren edo administrazioaren agiri bidez egiaztatuko dira merezimenduak.
Agiri horretan egindako lanak zehaztuko dira.

4. EUSKARA:

Medikuaren lan-poltsaren kasuan, hizkuntza eskakizunaren egiaztapena ondoko baremoaren
arabera balioetsiko da:

- 4. Hizkuntza eskakizuna: 4 puntu.
- 3. Hizkuntza eskakizuna: 3 puntu.
- 2. Hizkuntza eskakizuna: 2 puntu.
- 1. Hizkuntza eskakizuna: puntu 1.

**Onartua izateko eskabidea**

Gazteriaren Foru Erakundeko (Arabako Foru Aldundiaren organismo autonomoa) ALDI BATERAKO LAN-POLTSAK zabaltzeko
AUKERAKETA-PROZESURAKO DEIALDIA – 2025eko MAIATZA

Solicitud de admisión

CONVOCATORIA DEL PROCESO SELECTIVO para la ampliación de las BOLSAS DE TRABAJO TEMPORAL al servicio del
Instituto Foral de la Juventud, organismo autónomo de la Diputación Foral de Alava – MAYO 2025

Nahi duen lanpostua / Plaza a la que aspira (X batez markatu / marcar con una X)		
Uretako Kirol Jardueretako Espezialista Especialista de Actividades Deportivas Acuáticas		Muntaketako eta Zerbitzuetako Espezialista Especialista de Montaje y Servicios
Kirol Jardueretako Espezialista Especialista de Actividades Deportivas		Medikua Médico/a
1. abizena / 1 ^{er} apellido	2. abizena / 2 ^o apellido	Izena / Nombre
NAN/ DNI	Tel. 1	Tel. 2
Helbidea / Domicilio		
Herria / Población	Lurraldea / Provincia	PK/ CP
Posta elektronikoa / Correo electrónico		

Goian bere datu pertsonalak jarri eta behean izenpetzen duenak, eskabide honetan adierazitako hautaprotetarako onartua izatea eskatzen du; eta aitortzen du eskabide honetan jarritako xehetasun guztiak egiazkoak direla eta deialdiaren oinarrietan eskatutako baldintza guztiak betetzen dituela.

La/El abajo firmante, cuyos datos personales figuran en el encabezado de esta instancia, solicita ser admitida/o a las pruebas selectivas a que se refiere la presente solicitud y declara que son ciertos todos los datos consignados en esta instancia y que reúne todas las condiciones exigidas en las bases de la convocatoria

Vitoria-Gasteiz,

Sinadura / Firma

Oharra: Eskatzaileak emandako datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean jasoko dira eta behar duten babes maila emango zaie; izan ere, datu horiek eskatzaileak parte hartu nahi duen hautaketa-prozesua kudeatzeko baino ezin izango dira erabili, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 ERREGELAMENDUA eta, DATU PERTSONALEN BABESARI ETA ESKUBIDE DIGITALEN BERMEEI buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera.

Nota: Los datos de carácter personal suministrados por la/el solicitante, serán incorporados a un fichero automatizado y tratados con el grado de protección adecuado, únicamente a efectos de gestión del procedimiento selectivo en el que solicita ser admitida/o, conforme a lo dispuesto por REGLAMENTO (UE) 2016/679 DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO de 27 de abril de 2016 y la LEY ORGÁNICA 3/2018, de 5 de diciembre de PROTECCIÓN DE DATOS PERSONALES Y GARANTÍAS DE LOS DERECHOS DIGITALES

GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA / INSTITUTO FORAL DE LA JUVENTUD

Joaquín José Landázuri, 3 - 01008 Vitoria-Gasteiz